



# elika

Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria  
Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

# BEREZI@ 39

## SANDACH

**GIZAKIEK KONTSUMITZEKOAK EZ DIREN ANIMALIA-JATORRIKO AZPIPRODUKTUAK**



Gizakiek kontsumitzeakoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuen (SANDACH) **kudeaketa araututa dago, kudeaketan gizakien zein animalien osasunean eta ingurumenean arriskurik gertatuko ez dela bermatzeko** eta, bereziki, gizakientzako eta animalientzako elikakatearen segurtasuna bermatzeko.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1069/2009 Arauak (EE) eta Batzordearen 142/2011 Arauak (EB) 2011ko martxoaren 4az geroztik osatzen dute aplikatu daitezkeen lege-esparru erkidea.

### SARRERA

Animalia-jatorriko elikagaien eta produktuen ekoizpen- eta banaketa-kateak (animalien ekoizpenetik hasi eta haragia eta arraina merkaturatzeraino, animaliak hiltzea eta kanalak zatikatzea tarteko) azpiproduktu ugari sortzen ditu, erabilera ugariarako erabili izan direnak.

90eko hamarkadaren amaieran eta 2000. urtearen hasieran gertatu ziren elikagai-alerten aurretik, material horietako batzuk animaliak elikatzeke erabiltzen ziren.

Baliorik ez zuten edo xede horretarako erabili ezin ziren materialak zuzenean deuseztatzen ziren. Animalien gorpuen kasuan, ustiatzean bertan lurperatzen ziren. Beste azpiproduktu batzuk hondakindegietara bidaltzen ziren edo hiri-hondakinekin batera kudeatzen ziren.

Alerta horien ondorioz, Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak, Elikagaien Segurtasunaren Liburu Zuriaren esparruaren baitan, hainbat araudi onetsi zituzten, material horiek guztien kudeaketa segurtasun-baldintza handienetan eta modu integralean arautzen zutenak.

### ZER DIRASANDACHAK?

Elikagaiak lortzeko eta merkaturatzeko prozesuan, gizakiek kontsumitzeakoak ez diren hainbat produktu lortzen dira. Produktu horiek sartzen dira SANDACH kontzeptuan.

Europako arauen arabera, azpiproduktu horiek, laburki SANDACH deitutakoak, honela definitzen dira:

*“Animalien gorputz osoak ala zatiak, animalia-jatorriko produktuak edo animalietatik eratorritako beste produktu batzuk, gizakiek kontsumitzeakoak ez direnak; obuluak, enbrioiak eta esperma barne.*

**SANDACHak dira abeltzaintzaren oinarriko ekoizpenean eta animalia-jatorriko elikagaiak eraldatzeko industrian sortzen diren materialak, merkataritza edo osasun arazoak direla-eta elikakatearen barnean ez daudenak. Ondorioz, egoki kudeatu behar dira.**

Besteak beste, honako hauek dira SANDACHak:

- Animalien gorpuak.
- Arriskuko Material Espezifikoak (MER).
- Merkataritza-zirkuituetatik kentzen diren elikagaiak.
- Arrantzarako beita.
- Haragi-, hezur- eta arrain-irinak.

### NOLA SAILKATZEN DIRASANDACHAK?

Abiapuntu gisa, SANDACHak 1., 2. edo 3. kategorietan sailkatzen dira, eragin dezaketen arriskuaren arabera eta arrisku handienetik txikienera. Kategoriaren arabera, mugatu egiten da material horiek erabiltzeko eta suntsitzeko modua, baita horiek merkaturatzea, mugitzea, esportatzea edo inportatzea ere.

## 1. KATEGORIAKO MATERIALA

1. mailako materialen artean honako animalia-azpi produktu hauek sartzen dira:

a) Animalia hauen gorputz osoak edo edozein zati, larrua barne:

- i) Ustez EETren bat izan dezaketen (ikusi 999/2001 Araudia.) edo EETren bat ofizialki egiaztatuta duten animaliak.
- ii) EET suntsitzeko neurriak aplikatzean sakrifikaturiko animalia.
- iii) Abeletxetakoak eta basa-animaliak ez diren beste animalia batzuk, bereziki, laguntza-animaliak eta zoologiko eta zirkuetako animaliak barne.
- iv) Esperimentuetarako erabiltzen diren animaliak (ikusi 2010/63/UE Zuzentaraua eta 1831/2003 Araua)
- v) Basa-animaliak, baldin eta susmatzen bada gizakiei edo animaliei transmititu ahal zaien gaixotasunen bat dutela.

b) Honako material hauek:

- i) Arriskuko material espezifikoa.
- ii) Hildako animalien gorpu osoak edo zatiak, baldin eta suntsitzean arriskuko material espezifikoa badute.

c) Legez kanpoko tratamenduren bat aplikatu zaien animalien azpi produktuak (ikusi 2008/97/CE Zuzentaraua)

d) 96/23/CE Zuzentaruaren I. eranskineko B(3) taldeko substantzien edo ingurumen-kutsatzaileen hondakinak dituzten animalia-azpi produktuak, baldin eta hondakin horien maila Europako araudiak (edo besterik ezean, nazioko araudiak) baimendutakoa baino handiagoa bada.

e) Hondakin-urak tratatzean, hartutako neurriak aplikatuta bildutako animalia-azpi produktuak:

- i) 1. kategoriako animaliak prozesatzen dituzten establezimendu edo fabriketakoak, edo
- ii) Arriskuko material espezifikoa kentzen zaien beste establezimendu edo fabrika batzuetakoak.

f) Nazioartean jarduten duten garraiobideetako sukalde-hondakinak;

g) 1. mailako materialak 2. mailakoekin nahastuta, 2. mailakoekin nahastuta edo biekin nahastuta.

## 2. KATEGORIAKO MATERIALA

2. mailako materialen artean honako animalia-azpiproduktu hauek sartzen dira:

- a) simaurra, mineralizatu gabeko guanoa eta digestio-hodiko edukia;
- b) Hondakin-urak tratatzean, 27. artikularekin (1069/2009 Araudia) bat etorritako hartutako neurriak aplikatuta bildutako animalia-azpiproduktuak:
  - i) 2. kategoriako animaliak prozesatzen dituzten establezimendu edo fabriketakoak, edo
  - ii) 8. artikuluko (1069/2009 Araudia) bere baitan hartzen ez dituen hiltegiak.
- c) Baimendutako substantzien edo kutsatzaileen hondakinak dituzten animalia-azpiproduktuak, baldin eta 96/23/CE Zuzentarauaren 15. artikuluko 3. atalean aipatutako maila baimendua gainditzen badute.
- d) Gorputz arraroak edukitzeagatik, gizakien kontsumorako ez-egokitzat jo diren animalia-jatorriko produktuak;
- e) 1. kategoriakoak ez diren animalia-jatorriko produktuak:
  - i) Beste herrialde batetik inportatu edo sartutakoak, inportatzeko edo Europan sartzeko albaitaritza-legedi erkidegoa betetzen ez dutenak, kasu honetan izan ezik: legedi erkideak berriazko murrizketekin inportatzea edo sartzea edo hirugarren herrialdera itzultzea baimentzen badu; edo
  - ii) Legedi erkideak ezarri edo baimendutako baldintzak betetzen ez dituen beste estatu kide batera igorritakoak, kasu honetan izan ezik: jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudun arduradunak baimenduta itzultzen badira.
- f) 1069/2009 Araudiko 8. edo 10. artikuluetan jasotzen ez diren animaliek eta animalia-zatiak.
  - i) Gizakiek kontsumitzeko sakrifikatu edo akabatu gabe hil diren animaliak, gaixotasunak kontrolatzeko akabatutako animaliak barne,
  - ii) Fetuak,
  - iii) Ekoizpenerako ez diren oozitoak, enbrioak eta esperma, eta
  - iv) Arrautzan hildako eskorta-hegaztiak;
- g) 2. kategoriako materialak, 3. kategoriakoekin nahastuta.
- e) 1. kategoriakoak edo 3. kategoriakoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak.

## 3. KATEGORIAKO MATERIALA

3. mailako materialen artean honako animalia-azpiproduktu hauek sartzen dira:

a) Sakrifikatutako animalien kanalak edo zatiak, edo akabatutako animalien gorpuak edo zatiak, ehiza-animalien kasuan, Europako legediarekin bat etorri gizakiek kontsumitzeko egokiak direnak, baina merkataritza-arrazoia tarteko, xede horretara bideratzen ez direnak;

b) Hiltegi batean sakrifikatutako kanalak edo jarraian zehazten diren zatiak, *ante mortem* ikuskaritza baten arabera gizakiek kontsumitzeko egokiak direnak, edo Europako erkidegoarekin bat etorri gizakiek kontsumitzeko akabatu diren ehiza-animalien gorpuak edo honako zati hauek:

i) Europako legediaren arabera, gizakiek kontsumitzeko ez-egokitzat jotako animalien kanalak edo gorpuak eta zatiak, baldin eta gizakiei edo animaliei transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute,

ii) Eskorta-hegaztien buruak,

iii) Honako animalia hauen larruak (ebakinak eta larru zatikatua barne), adarrak eta oinak (falangeak, karpoko eta metakarpoko hezurak, eta tartsoko eta metatartsoko hezurak):

- Hausnarkariak ez diren animaliak, EET diagnostikatzeko probak behar dituztenak, eta

- Diagnostiko-probak egin eta adostasun-emaizta negatiboa izan duten hausnarkariak (999/2201 Araudia)

iv) Zurdak,

v) Lumak;

c) Ustiategian sakrifikatu diren eskorta-hegaztien edo lagomorfoen azpiproduktuak (853/2004 Araudia), baldin eta gizakiei eta animaliei transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute;

d) Gizakiei eta animaliei odolaren bidez transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez zuten animalien odola, Europako legediarekin bat etorri *ante mortem* adostasun-ikuskaritzaren arabera, gizakiek kontsumitzeko egokitzat jo ostean hiltegi batean sakrifikatutako animalia hauetatik eratorria:

i) Hausnarkariak ez diren animaliak, EET diagnostikatzeko probak behar dituztenak, eta

ii) Diagnostiko-probak egin eta emaitza negatiboa izan duten hausnarkariak (999/2001 Araudia)

e) Gizakiek kontsumitzeko produktuak ekoiztean sortutako animalia-azpiproduktuak, honako hauek barne: koipea kendutako hezurak, gantxigorak eta zentrifugatu- edo bereizte-lohiak, esnekien ekoizpenetik eratorrirakoak;

f) Hainbat arrazorengatik (merkataritza, fabrikazio-arazoak, ontziratze-akatsak, edo osasun publikorako edo animalien osasunerako arriskutsuak ez diren beste akats batzuk), gizakiek kontsumitzekoak ez diren animalia-jatorriko produktuak dituzten animalia-jatorriko produktuak edo elikagaiak;

g) Hainbat arrazorengatik (merkataritza, fabrikazio-arazoak, ontziratze-akatsak, edo osasun publikorako edo animalien osasunerako arriskutsuak ez diren beste akats batzuk), animaliek kontsumitzekoak ez diren laguntza-animalientzako elikagaiak eta animalia-jatorriko pentsuak edo animalia-azpiproduktuak edo eratorritako produktuak dituzten pentsuak;

h) Animalia bizien odola, plazenta, artilea, lumak, ilea, adarrak, apo-ebakinak, atzazalak edo apatxak eta esne gordina, baldin eta gizakiei edo animaliei produktu horien bidez transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute;

i) Uretako animaliak eta horien zatiak (uretako ugaztunak izan ezik), baldin eta gizakiei edo animaliei transmititu ahal

zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute;

j) Uretako animalien azpiproduktuak, gizakiek kontsumitzeko produktuak ekoizten dituzten establezimendu edo fabriketakoak;

k) Jarraian zehazten diren animalia-jatorriko materialak, baldin eta gizakiei edo animaliei material horien bidez transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute:

i) Ehun bigunak edo haragia kendu zaien moluskuen maskorrak,

ii) Animalia lehortarren produktu hauek:

- inkubagailuko azpiproduktuak,

- arrautzak,

- arrautzen azpiproduktuak, oskolak barne,

iii) Egun bateko txitak, merkataritza-arrazoiengatik sakrifikatu direnak;

l) Ornogabe urtar zein lehottarrak, gizakientzako zein animalientzako espezie patogenoetakoak izan ezik;

m) *Rodentia* eta *Lagomorpha* ordena zoologikoko animaliak eta horien zatiak, honako hauek izan ezik: 8. artikuluko a) hizkiko iii), iv) eta v) tartekietan aipatzen den 1. kategoriako materiala, eta 9. artikuluko a)-tik g)-ra bitarteko hizkietan aipatzen den 2. kategoriako materiala (1069/2009 Araudia);

n) 1069/2009 Araudiko 10. artikuluen b) hizkian aipatzen ez diren hildako animalien larruak, apoak, atzazalak edo apatak, lumak, artilea, adarrak eta ilea, baldin eta gizakiei edo animaliei material horien bidez transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute;

o) Hiltegi batean akabatu eta nazioko legediaren bat etorri *ante mortem* ikuskaritzan gizakiek kontsumitzeko hiltzeko egokitutako ziren animalien ehun adiposoa, baldin eta gizakiei edo animaliei material horien bidez transmititu ahal zaizkien gaixotasunen zantzurik ez badute;

p) 1069/2009 Araudiko 8. artikuluen f) hizkiak bere baitan hartzen ez dituen sukalde-hondakinak.

## ZEIN DA SANDACHEN XEDEA?

Aurreko sailkapenaren arabera, araudi berak hainbat xede ezartzen ditu, suntsituz zein balioztatuz gero.

Jarraian dagoen koadroan SANDACHen xedeak adierazten dira, kategoriaren arabera

### 1. KATEGORIAKO SANDACHEN XEDEA

1. kategoriako materiala:

a) Hondakin gisa suntsituko da, errausketaren bidez:

i) Aurreko prozesamendutik gabe, zuzenean edo

ii) Prozesatu ostean, presioaren bidezko esterilizazioaren bidez, hala eskatzen badu agintaritza eskudunak, eta ondoriozko materiala behin betiko markatuta.

b) Suntsitu edo balioztatu egingo da, ko-errausketaren bidez, hondakina bada:



i) Aurreko prozesamendutik gabe, zuzenean edo

ii) Prozesatu ostean, presioaren bidezko esterilizazioaren bidez, hala eskatzen badu agintaritza eskudunak, eta ondoriozko materiala behin betiko markatuta.

c) 1069/2009 Araudiko 8 artikularen a) hizkiko i) eta ii) tartekietan aipatutakoa ez bada, honako prozesu hauen bidez suntsituko da: presioaren bidezko esterilizazioa, ondoriozko materiala behin betiko markatzea eta baimendutako hondakindegri batean lurperatzea;

d) Nazioartean jarduten duten garraibideetako sukalde-hondakinak suntsitzeko, baimendutako hondakindegri batean lurperatuko dira;

e) Erregai gisa erabiliko dira, aurretik prozesatuta edo prozesatu gabe, edo

f) 1069/2009 Araudiko 33., 34. eta 36. artikuluetan aipatutako produktu eratorriak egiteko erabiliko dira, eta artikuluhoriekin bat etorri sartuko dira merkatuan.

## 2. KATEGORIAKO SANDACHEN XEDEA

2. kategoriako materiala:

a) Hondakin gisa suntsituko da, errausketaren bidez:

i) Aurreko prozesamendutik gabe, zuzenean edo

ii) Prozesatu ostean, presioaren bidezko esterilizazioaren bidez, hala eskatzen badu agintaritza eskudunak, eta ondoriozko materiala behin betiko markatuta.

b) Suntsitu edo balioztatu egingo da, ko-errausketaren bidez, hondakina bada:

i) Aurreko prozesamendutik gabe, zuzenean edo

ii) Prozesatu ostean, presioaren bidezko esterilizazioaren bidez, hala eskatzen badu agintaritza eskudunak, eta ondoriozko materiala behin betiko markatuta.

c) Baimendutako hondakindegri batean suntsituko dira, aurretik prozesatu ostean: presioaren bidezko esterilizazioa eta ondoriozko materiala behin betiko markatzea.

d) Jatorri organikoko simaurrak eta lurzoruaren zuzentzaileak egiteko erabiliko da, eta 1069/2009 Araudiko 32. artikularekin bat etorri merkaturatuko dira, presioaren bidez esterilizatu eta, hala badagokio, ondoriozko materiala behin betiko markatu ostean.

e) Konposta egin edo biogas bihurtuko da:

i) Presioaren bidez esterilizatu eta ondoriozko materiala behin betiko markatu ostean, edo

ii) Simaurraren, digestio-hodiaren eta bere edukiaren, esnearen, esnekien, oritzaren, arrautzen eta arrautza-produktuen kasuan, agintaritza eskudunak uste badu transmiti daitezkeen gaixotasun larriak hedatzeko arriskurik eragiten ez dutela, aurretik prozesatuta ala prozesatu gabe;

f) Lurrari aplikatuko zaio, aurretik prozesatu gabe, honako hauen kasuan: simaurra, digestio-hoditik bereizitako digestio-hodiko edukia, esnea, esnekiak, oritza; agintaritza eskudunak uste badu transmiti daitezkeen gaixotasun larriak hedatzeko arriskurik eragiten ez dutela;

g) Animalia urtarrena bada, siloratu, konpostatu edo biogas bihurtuko da;

e) Erregai gisa erabiliko dira, aurretik prozesatuta edo prozesatu gabe, edo

f) 1069/2009 Araudiaren 33., 34. eta 36. artikuluetan aipatutako produktu eratorriak egiteko erabiliko dira, eta artikuluhoriekin bat etorritik sartuko dira merkatuan.

### 3. KATEGORIAKO SANDACHEN XEDEA

3. kategoriako materiala:

a) Hondakin gisa suntsituko da, errausketaren bidez, aurretik prozesatuta edo prozesatu gabe;

b) Hondakin bat bada, ko-errausketaren bidez suntsituko edo balioztatuko da, aurretik prozesatuta edo prozesatu gabe;

c) baimendutako hondakindegian suntsituko da, aurretik prozesatuta;

d) 3. kategoriako materiala deskonposizioaren eta degradazioaren bidez aldatu eta osasun publikorako edo animalien osasunerako arrisku onartezina eragiten duenean salbu, produktu horren bidez prozesatuko da, eta honako hauetarako erabili:

i) Abeletxeetako animalientzako pentsuak ekoizteko (larrugintzakoak ez direnak), eta merkatuan 31. artikuluari jarraikiz (1069/2009 Araudia) sartuko dira, 10. artikulua n), o) eta p) letretan jasotako materiala denean salbu,

ii) larrugintzako animalientzako pentsua ekoizteko, eta merkatuan 36. artikuluari jarraikiz (1069/2009 Araudia) sartuko dira,

iii) laguntza- animalientzako pentsua ekoizteko, eta merkatuan 35. artikuluari jarraikiz (1069/2009 Araudia) sartuko dira; bestela,

iv) Jatorri organikoko simaurrak eta lurzorua zuzentzaileak ekoizteko, eta merkatuan 32. artikuluari jarraikiz (1069/2009 Araudia) sartuko dira.

e) Laguntza-animalientzako elikagai gordinak ekoizteko erabiliko da, eta merkatuan 35. artikuluari jarraikiz (1069/2009 Araudia) sartuko dira;

f) konposta egin edo biogas bihurtuko da;

g) Animalia urtarrena bada, siloratu, konpostatu edo biogas bihurtuko da;

h) 2. artikulua 2. atalaren f) letran aipatzen direnak ez bezalako molusku-maskorrek eta arrautza-oskolak badira, agintari eskudunek ezarritako baldintzetan erabiliko da, osasun publikorako eta animalien osasunerako arriskuak saiheste aldera;

i) Erregai gisa erabiliko da, aurretik prozesatuta edo prozesatu gabe;

j) 33., 34. eta 36. artikuluetan aipatutako produktu eratorriak ekoizteko erabiliko da, eta merkatuan artikuluhorien arabera sartuko da;

k) 10. artikulua n) letretan (1069/2009 Araudia) aipatutako sukaldeko hondakinak badira, presioaren bidez esterilizatuta edo 16. artikulua 1. ataleko lehenengo paragrafoko b) letretan aipatutako prozesatze-metodoen bidez prozesatuko dira, edo konpost edo biogas bihurtuko da, edo

l) Lurrean aurretik prozesatu gabe aplikatuko da, esne gordina, oritza eta produktu eratorriak badira, agintaritzaren eskudunak uste badu transmiti daitezkeen gaixotasun larriak hedatzeko arriskurik eragiten ez dutela.

**ADMINISTRAZIOAREN KONTROLA**

Herri-administrazioei dagokienez, esan daiteke autonomia-erkidegoek euren baimen- eta balioztatze-protokolo eta -dokumentuak egin dituztela, SANDACHa darabilten tarteko eta garraio-instalazioetarako, eta SANDACHa prozesatetik eratorritako produktuak erabiltzen direnetarako.

1069/2009 Araudiak (EE) ezartzen ditu instalazioei (tartekoak eta eraldatze-lanak egitekoak) eta biltegiei ezarri beharreko gutxieneko betekizunak, baimentzeko eta, bidezkoa bada, balioztatzeko. Halaber, horietan egin beharreko bertakoen kontrolak zein kontrol ofizialak ezartzen dira.

Sektoreak SANDACHen trazabilitatea kate osoan jarraitzea ahalbidetzen duen sistema bat izateak duen garrantzia dela eta, operatzaile bakoitzak (SANDACHak sortzen, igortzen, garraiatzen eta hartzen dituzten enpresak) manipulatzeko edo kudeatzeko diren azpiproduktuen informazio jakin bat erregistratu eta kontserbatu behar dute, dagozkion merkataritza-dokumentuekin eta osasun-ziurtagiriek batera.

**LOTURA INTERESGARRIAK**

- Eusko Jaurlaritza - GELS - Nekazaritza eta abeltzaintza - SANDACH
- MAAMA-SANDACH
- AECOSAN - SANDACH gida, elikagaien establezimenduetarako
- AECOSAN-SANDACH
- Europako Batzordea. *Animal by products*